

AIURRI

BETERRI-AIZTONDOKO HAMABOSKARIA



AIURRI

Torturapean amaitu zeneko polizia operazioa, 1980ko azaroan / 4-6



AIURRI

Gabonetako ekitaldi ugari antolatu dira, zailtasunak zailtasun / 10-17

Presoen aldeko hitzorduak eskualdean / 10



ZOZKETA: ERREGE OPILA



PROFESIONAL MAILAN

Erkizia eta Dorronsoro Eibar taldeko staff teknikoaren buru dira / 7-9

AIURRI



La Salle Berrozpe
LSB
Andoain



BANAKAKO BISITA IKASTETXEAN



TALDE TXIKIENTZAKO ATE IREKIAK IKASTETXEAN



BISITA ETA AHOLKULARITZA ONLINE

www.lasalleberrozpe.eus

943 596 557

info@lasalleberrozpe.eus

etorkizunerako bidean!



bastero
KULTURGUNEA
ANDOAIN

ERAKUSKETA

Urtarrilak 12
Otsailak 4

Leire Salaberria

ILUSTRATZAILEA

HELDUEN ANTZERKIA

Mauthausen

TRAJÍN TEATRO

Urtarrilak 15,
ostirala.
19:00



ALPHA

HAUR ANTZERKIA (EUSKARAZ)

Lo egiteko
ordua

Urtarrilak 17,
igandea.
17:00



MUSIKA

Willis Drummond

Urtarrilak 22, ostirala. 19:00

Garapen sustatzaileak



KOLABORAZIOAK



XABIER LASA BERGARA AIURRI

Andoaingo 112 torturatuek ERE zerbait merezi ote?

112 andoaindarrek torturak jasan dituzte 1961-2013 epealdian (152 atxilotu).

80 torturatu 1961-1978 epealdian Oroituz elkarteak Argentinako kereilarako jasotako testigantzen arabera; 32 torturatu 1979-2013 epealdian Euskal Memoria Fundazioko datuen arabera.

Horietatik askok Andoaingo Udaletxetik 500 metrora zegoen kuartelean pairatu zituzten tortura psikologikoak eta fisikoak, Andoainen erroldatuta zeuden funtzionario publikoen eskutik, besteak beste.

Ander Armendarizek, Xabier Arrutik eta Joxean Arrutik beren testigantza pertsonala emateko ausardia, gogoia eduki dute. Badira gehiago kamera baten aurrean hitza hartu dutenak, baita lekukotza emateko inork eskatu ez dien kideak ere. Eta badira ez dutenak gogora ekarri nahi izan, hainbat eratako trauma psikologikoek edo fisikoek eragozten dietelako...

Motibazio politikoa zuten zenbait jatorriko biolentziak sufritu dira

Euskal Herrian, eta horietako bat izan da tortura. Giza eskubideen urraketen jerarkizazioa egitea zilegia bada, jakina, gizaki bati bizia kentzea ipini behar da goi-goian, horrek ez daukalako atzera-bueltarik. Baina zerrenda horretan, torturaren errealitateak ERE hartu beharko luke dagokion tokia, batik bat administrazio publikotik bultzatzen diren iraganaren inguruko egiaren, justiziaren eta aitortzaren aldeko politketan.

Alabaina, urrun gaude toki hori hartzetik, oso urrun. Gizartean legea eta segurtasuna ezartzeko mandatua zeukaten funtzionario publikoak izan direlako biolentzia mota horren egile, sistema oso baten beso exekutatzailerak. Inpunitate osoz jardun dutelako, epaileen, mediku-forentseen eta terrorismoaren izenean dena –edo ia– zilegi zela iruditu zaion klase politikoaren konplizitatearekin.

Injustiziazko egoeretan, “Egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermeak” da ezarri beharreko printzipioa. Bada, lehenbiziko urratsaren hasieran

baizik ez gaude oraindik. Jaurlaritzak Pako Etxeberria forentseari agindu zion torturaren gaineko txostena osa zezan. 2017ko abenduan argitara emandako datuen arabera, 4.113 tortura kasu izan dira EAEn (1960 eta 2014 urteen artean), Guardia Zibilak, polizia naiz Ertzaintzak eragina; Etxeberriak ohartarazi zuen, hala ere, tortura kasuak askoz gehiago direla. Lagin modura: 1980ko azaro-abenduan atxilotutako-torturatutako zortzi andoaindarretatik soilik batek eman du testigantza txosten horretan.

Hiru urte igarota, apenas igarri da aurrerapausorik; atzeratuena doan kapitulua da giza eskubideen urraketen atalean. Non ote bestetan horren azkar aplikatzen den autokritikaren kontzeptua, edo eta klase politikoen eskutik aitortzazko ekitaldi publikoak?

Ez dakit zeren zain dauden. Akaso, torturatu horiek –eta gainerako herriarrek– ahaztu ditzagun bere garaian komisaldegietan jasandako izugarrikeriak, edo-eta lege biologikoak beren lana egin dezan torturatu guzti horiekin.



EGOITZA:
Arantzibia plaza, 4-5. Andoain.
Tel.: 943 300 732.

Erredakzioa:
Jon Ander Ubeda, Xabier Lasa,
Olatz Lasa, Mikel Arberas,
Sara Medrano, Alba Cabrera.

Diseinua: Goiena.

Maketazioa:
Maddi Truxuelo.
diseinua@aiurri.eus
Edizio jarraia: www.aiurri.eus



Publizitate arduraduna:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
605 718 041

Administrazioa, harpidetzak:
Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus

Lege Gordailua: SS-202/94.

ISSN: 1134-0614.

Tirada: 1.650 ale.

Inprimategia:
Antza inprimategia.

Banaketa:
Aiurri ordainpeko banaketa bidez banatzen da.

Banatzailerak:
Andoain: Rocío Arias.
Amasa-Villabona, Aduna, Zizurkil,
Asteasu eta Larraul: Gorka Novillo.
Urteko harpidetza saria: 40 €.
Kioskoan salgai: 2,50 €, aleko.
Andoain: Emaitza, Stop.
Amasa-Villabona: Basajaun, Amasa
kafetegia. Zizurkil: Ogi-zuri.

Udalerrien babesarekin argitaratzen da



Bikaintasun ziurtagiria



Laguntzaileak:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



Hamar eguneko infernua, torturapean

40 urte bete dira berriki Andoaingo hainbat gazte atxilotu zituztenetik; tortura latzak salatu zituzten orduan. Horietako hiruk, Ander Armendarizek eta Joxean eta Xabier Arruti anaiek, egun haiek oroitu dituzte. Bi urte eta zortzi hilabeteko gartzelaldiaren ostean, absuluzioa iritsi zitzairen

XABIER LASA ANDOAIN

1980ko azaroaren 30ean sei gazte andoaingar atxilotu zituen Guardia Zibilak, ETA politiko-militarreko militanteak zirelakoan: Ander Armendariz, Xabier Arruti, Joxean Arruti, Josu Iraola, Bixente Aizpuru eta Iñaki Olazabal. Lau aurrenekoak Andoainean atzeman zituzten, Aizpuru Melillan (soldaduskan) eta Olazabal Madrilan (ikaslea). Egun berean, Joxe Mari Loiar-te atxilotu zuten, baina berehala askatu zuten. Beste hiru gazte ihes egin zuten: Karlos Almorta, Jexux Mari Ansa eta Xabier Jauregi. Hamar egunez inkomunikatuta egotea ahalbidetzen zuen lege antiterrorista aplikatu zieten atxilotuei.

Abenduaren 3an, berriz, Joxe Mari Azkue udal langilea atxilotu zuten. Abenduaren 10ean aske utzi zuten, kargurik gabe; torturak salatu zituen.

Ezohiko udalbatza

Abenduaren 4an, Andoaingo Udalak ezohiko udalbatza egin zuen, atxilotetak aztergai bakartzat edukita. EEko alkate Josean Perez Gabarainek eta talde bereko lau zinegotzik zein EMKko zinegotziak (LKI eta HBren babesarekin) mozio bana aurkeztu zuten, baina, orohar, bat etorri ziren senideek jasandako irainak eta atxilotuak torturatuak izaten ari ziren ziurtasuna salatzerakoan. Beste hainbat kontu ere salatu zituzten: batetik, atxilotuak babesgabe uzten zituen lege antiterrorista; bestetik, Euskal Herriaren askatasunaren alde ari omen ziren

kideen kontra estatuak zera-bilen torturaren erabilera sistematikoa. Andoainean eta eskualdean ultraeskuineko bandek bizi omen zuten in-punitatea ere gogoan hartu zuten. Azkenik, herritarrei gonbidatu zieten manifesta-zioetan parte hartzera.

Udalbatzan, udal langileen agiria ere irakurri zen, Joxe Mari Azkue lankidea gogoan hartuta: atxiloketa eta lege antiterrorista salatzeaz gain, adierazi zuten Euskal Herriko arazoez irtenbide politikoa eskatzen zutela eta lege horrek ez zuela batere laguntzen egin-bide horretan.

EAJko zortzi zinegotziek atxilotuei Konstituzioak onesten dituen eskubideak aplikatzea eskatzen zuen mozioa aurkeztu zuten: tartean, gogoratzen zuten atxilotua ezin dela derrigortu deklaratzera, abokatuaren presentzia behar duela eduki, eta 72 ordu-tara aske ipini edo epaile baten aurretik pasa behar duela.

EE eta EMK alderdien mozioek sei boto jaso zituzten, berenak; EAJrenak ere, beren botoak soilik, zortzi. PSOEko hiru zinegotziak, berriz, abs-tenitu egin ziren guztietan. Hortaz, egun hartan ez zen mo-ziorik onartu.

Andoaingo kuartelean, lehen jipoiak

Orduan 20-25 urte bitarte zituzten Arruti anaiek eta Armendarizek gogoan dute azaroaren 30ko goiz partean hasi zen sarekada. Elurra egin zuen, eta bezperan parranda txikia egindakoak ziren.

Armendariz izan zen goiz-tiarrena, sekuentzian: “Goizeko 07:30ak aldera, Guardia Zibilak gurasoen etxetik atera eta Andoaingo kuartelera eram-ninduen; bidean, tiro bat emanda bide ertzean hilda utziko nindutela esaten zidaten behin eta berriro. Jada Andoaingo kuartelean, jipoiak eta mehatxuak etengabeak izan ziren goiz guztian. Kuartelilloan sartu eta eskuinean zegoen gela huts batera eram-ninduten, eta han galdeketari ekin zioten. Ikusi zutenean ez nengoela deklaratzeko prest, aldatu egin zuten “estrategia”. Ostikoak, zartakoak, ukabilkadak, lepo-estutzeak... Hura zen zaparrada! Horrela ari zirela, ohartu ziren lehendik minduta neukan orkatila bereziki babesten saiatzen ari

1980KO AZAROAN ZAZPI LAGUN ATXILOTU ZITUZTEN ANDOAINEN

ATXILOTUEZ GAIN, BESTE HIRU GAZTEK IHES EGIN ZUTEN

TORTURAREN ERABILERA SISTEMATIKOA SALATU ZEN HAINBAT MOZIOTAN

nintzela kolpeetatik; orduan, harekin fijasioa jarri, eta behin eta berriro zapaldu zidaten! Ordubete pasako saioa izan zen, lagunak atxilotuta ekarri zituzten arte. Gela huts hartatik ateratzean, atzera begiratu, eta han ileak eta odola besterik ez nituen ikusi. Aurpegia garbitzeko komunean sartzean, ispiluan lepotik gora dena belztuta zegoen pertsona bat sumatu nuen!”.

Ihesaren aukera

Joxean Arruti atxilotze saia-keran leihotik ihes egiten aha-legindu zen, maindireak elkar lotuta; kalean atzeman zuten, hala ere. Bestelako “iheserako aukerak” bizitu zituzten lau gazteek, hainbat lekutan eta egoeratan. Joxean bera Aduna aldetik gora, mendi aldera eram-n zuten, eta han ihes egin zezan animatu zuten maiz, tarteka tiroren bat zuhaitze-tara jaurtiz batera. Andoaingo kuartelean, Xabier Arruti ere xaxatu zuten gauza berbera egin zezan: “Komunean sar-tzeko agindu, eta esaten zida-ten: *escápate como tu herma-no por la ventana, te dejamos que te marches*. Geroxeago, kuartelaren atarian metraile-ta eskuan zegoen guardia zi-bilak zera aitortu zidan: *esta-ba preparado para darte un tiro en cuanto te viera salir por esa ventana*”. Anderrek ere antzekoa bizitu zuen uner-n batean: “hormaren kontra nengoela, leihotik salto egite-ra gonbidatzen zidaten, eta bien bitartean, arma karga-tzeko soinua ateratzen zuten eta kulatarekin belarrietan jotzen ninduten”.

Arratsalderako, Antiguako kuartelera eram-n zituzten lauak. Harreran, izu psikolo-gikoari heldu ziotela adierazi du Ander Armendarizek. “Haie-tako bat eskuan liburu handi bat zuela azaldu zen, esanez hura Konstituzioa zela eta han jartzen zuela isilik gera gin-tezkeela. Hori bai, ohartarazi zigun hitz egiten bagenuen bizirik irtengo ginela koman-



Ander, Joxean eta Xabier preso egon ziren garaian Andoainen manifestaziora deituz kaleratu zen afitxatoko batekin. AIURRI

dantziatik. Baina mutu geratzen baginen... Zapla, liburua bortizki itxi zuen!”.

Joxean Arrutik buruan iltzatuta geratu zaion beste mehatxu bat erantsi du: “Esaten ziguten: *¡Que vienen el doctor miedoy Billyel Niño de Madrid, y veréis lo que es jugar a la ruleta rusa!* Horrekin batera, poltsa, bainera eta elektrodoak erakusten zizkiguten”.

Azaldutenez, konta ezin ahala guardia zibilen “eskue-tatik” pasa ziren hamar egun gogaikarri haietan. Tartean, Intxaurrondoko kuartelean gerora famatuak egingo ziren Villalobos, Bayo eta Galindo guardia zibilak, besteak beste, Baionan 1983ko urriaren 16an Lasa eta Zabala gazteen bahiketaren, torturen eta erailketaren egileak. Intxaurrondoko kuartela eraiki berria zen 1980rako, eta Joxean Arruti handik pasarazi zuten goiz batean. “Kuartel horren patioan, lehertu edo metrailatutako Land Roverrak jarrita

zeuzkaten monumentu gisaredo, eta haietako batean sarrrarazi eta bakarrik utzi ninduten, *“¡esto lo has hecho tú!”* leporatu eta gero. Barruan nengoela, horretorri ziren emakume pila, *“¡Asesino, hijo de puta, te vamos a matar!”* garrasika, beren onetik aterata, eta hor hasi dira Land Roverra astintzen, alde batera eta bestera! Izua sentitu nuen benetan!”.

Eguna joan eguna etorri, era guztietako jipoiez eta heriotza mehatxuez jositako galdeketek jarraitu zuten. Xabier Arrutik dioenez, presoak pilatuta egoten ziren geletan, eta banaka eramaten zituzten galdeketa-tara. “Saioak bukatzen zirenean, presoak arrastaka ekartzen zituzten, eta lurrera botatzen zituzten patata-zakuak bezala; jendea kristo eginda ekartzen zuten gehienetan”.

Joxeanek, bere anaiak, Antiguan, inoiz ikusi izan duen gizakiaren aurkako degradazioziorik handiena kontatu du:

“Egun haietan atxilotuetako emakume bat alde alde jarritako barra batean zintzilika eduki zuten; buruz behera, belauak gorantz eta hankak irekita. Ilekoarekin zegoen, eta aluan gerriko batekin jotzen zioten”.

Tratua leuntzen

Antiguako egonaldiko azken egunetan jipoien saioen intentsitatea jaitsi, eta nagusitzen joan ziren gorputzeko ubelduak pomadarekin igurtzeko aginduak. Xabier Arrutiren kasuan, besteei baino lehenago. “Aurreneko bi egunetan, *erruedaren* praktika tipikoa ezarri zidaten: guardia zibilak inguratzeko zaituzte, eta hor doazkizu ostiak hemendik, ostiak handik.... Lurrera erortzen zarenean, ostikoka eta saltoka hasten zaizkizu gorputz osoan. Saio haietan, bizkarreko oinazeak egiten zitzaizkidan bereziki jasangaitzak! Izan ere, aurrez istripua edukia nuen, eta zizko egina neukan. Bada,

ez dakit zenbagarren egunean, nonbait Andoaingo alkatea eta nire ama istripuarekin lotutako mediku ziurtagiri batekin agertu ziren komandantzian, eta harrez gero, eten egin zituzten jipoiak!”.

Edozer sinatzeko prest

Hirurak ere ikasgai bat ondo ikasita irten ziren atxiloteta hartatik: “Edozein pertsona polizien txotxongilo bat besterik ez da bihurtzen inkomunikazioaldi luzean, presio fisikoen eta psikologikoen pean”.

Horrela, hainbat erasoen (zenbait enpresarien bahiketa eta belaunetan tiro jotzeak, banku-lapurretak...) aitortza deklaratzeko zituzten agiriak sinatu zituzten lauek. “Nahi zuten guztia jarri zuten deklarazioan, guk sinatu genezan. Batek bota zidan: Kennedy presidentearen hilketa ere sinatuko zenuke zuk, guk nahi izanez gero”, dio Joxean Arrutik.





Andoain eta Antiguako kuarteletan ahaztekoak hobeak diren une latzak sufritu arren, testigantza ematera animatu dira. AIURRI

→ Hamargarren egunean epailearen aurretik igaro zirenean, sinatutakoa torturapean egin zutela adierazi zioten hari. Armendarizek batik bat, aurpegiari kolpeen arrasto nabariak zeuzkan oraindik. “Carabancheleko presondegira bidali gintuen, eta handik hiru bat egunera, Madrilgo epaitegiko bi langilek bixita egin zidaten. Epailearen aurrean salatutako torturari buruz deklarazioa hartu zidaten. Baina geroztik ez nuen ezer jakin”.

Arruti anaiek eta Armendarizek ez daukate zalantzarik zera adierazterakoan: poliziak, hamarkadetan, motibazio politikoko presoek torturak aplikatzerako orduan, epaileen, forentseen eta klase politikoa konplizitateaz baliatu dira.

Bestalde, Josu Iraolak eta Joxean Arrutik euren familiei gutun bana bidali zieten Carabancheleko kartzelatik, 1981eko urtarrilean. Guardia zibilen esku bizitutakoak kontatu zizkieten, eta *Egin* egunkariak urtarrilaren 30ean eman zituen jakitera. Iraolak idatzita utzi zuenez, denetik egin zioten: mendira eramane eta pistola bat buruan jarrita era guztietako mehatxuak egin zizkieten, Andoaingo kuartelean etengabe jasan zituen

kolpeak eta mehatxuak, eta Antiguako, plastikozko buruan jarrita eduki zuten ia ito arte, aulki batean eserarazita elektrodoak ipini zizkieten, mahai batean etzanda jarrita kirofanoa egin zioten (kolpeetako batek belarria odoletan utzi zion, ia entzumenak galtzeraino), oin azpian gas-butanolko hodi batekin jo zioten...

Carabanchel, paradisua

“Infernutik paradisuraigarotzea bezala izan zen” aitortu dute hirurek, Carabancheleko presondegian sartu zituztenean. Torturak salatu izan dituzten makina bat euskal herritarrek azaldu izan duten antzerako sentsazioa errepikatzerako mugatzen dira lauak.

Andoaingo sei gazteak Carabanchelen ez ezik, Soriako, Burgosko eta Langraitzeko presondegiatan ere egon ziren preso. Eta denbora horretan, bi gose grebetan (1981eko otsailean Joseba Arregi torturapean hil zutenean, eta, 1982ko urrian Juan Pablo II. Aita San-

tuak estatura bisita egin zutenean) eta Langraitzeko motinean parte hartu zuten.

Epaiketa eta absoluzioa

80ko hamarkadaren hasierarako, UCDko Roson Barne ministroak eta Euskadiko Ezkerrako Bandres eta Onaindia buruzagiek ETA pm-aren armagabetze prozesua bidean jarria zuten, eta laster, bitan zatitu zen talde armatu hori, VII eta VIII asanbladetan; une historiko hartan borroka armatuak ez zuelazentzurik zioen bat, kontrakoa besteak. Aizpuruk eta Olazabalek bat egin zuten politikoei abian jarritako prozesuarekin, eta aske utzi zituzten 1983ko uztailaren 22an.

Urte berean, Kode Penalaren erreforma onetsi zuten Kongresuan; eta horren arabera behin-behieneko egoeran zeuden presoek gehienez 18 hilabeteko kartzelaldia egin zezaketen. Ordurako lau preso andoaindarrek 32 hilabete zeramaten preso. Aske geratu ziren, epaiaren zain.

Urte bereko urriaren 20an sei andoaindarren aurkako epaiketa egin zen Madrilan. Pertsonen aurkako eraso ugariak eta larriak egotzi zizkieten, hamar eguneko inkomunikazioan sinatu zituzten deklarazioetan oinarrituta. Baina absoluzioa izan zen azken epaia.

Torturaren errealitatea, bistaratzeko

Joxeanek, Xabierrek eta Anderrek euskal herritar ugarik jasan izan duten torturen kapitulu iluna azalartzeko premia ikusten dute, Euskal Herriko memoria kolektiboaren parte izan dadin. Kontziente dira zeregin horren zailtasunaz: estatuak sustatutako biolentzia mota izan delako, batetik. Eta bestetik, iruditzen zaielako sektore handi bat –atzetik datozen belaunaldi gazteenak batik bat– komunikabide handietatik helarazten diren mezuekin geratzen ari dela, eta era horretan, Euskal Herriko historia hurbilaren bertsio partziala jasotzen ari direla.

**ANDOAINEN
ATXILOTUTAKO
GUZTIEK TORTURAK
SALATU ZITUZTEN**

**KUARTELEKO
INFERNUTIK
IGAROTA, GARTZELA
PARADISUA ZEN**

**EPAIA ABSOLUZIOA
IZAN ZEN, 2 URTE
ETA ERDI ESPETXEAN
IGARO ETA GERO**



Ordu gutxi lo eginda, Valentziatik itzuli berritan elkarrizketa egiteko prest agertu ziren Beñat Erkizia eta Iker Dorronsoro. AIURRI

“Umiltasuna da nagusi emakumezkoen futboleant”

BEÑAT ERKIZIA ETA IKER DORRONSORO EIBAR TALDEKO ENTRENATZAILEAK

Irakasletza eta futbola partekatzen dute, baina biak maite dituzte berdin; hainbesterako, ez luketela jakingo zein lehenetsi, beharra izatekotan. Biek ere Andoainekin harreman estua dute

ANDONI URBISTONDO ANDOAIN
Begiak handituta eta gorputza zigortuta azaldu dira Aiurriko egoitzara. Valentzian partida jokatu, eta etxera goizaldeko 4retan iritsi ostean, bus bidaia

nekosoaren ondoren. Biak emakumezkoen elitean ari dira, Eibar taldean. Iker igel-doiarra entrenatzaile, Beñat andoaindarra prestatzaile. Oso ezagunak biak Andoainen:

Dorronsoro Euskalduna taldean aritu izan zelako bi urtez; Erkizia bertakoa delako. Irakasletzaren eta futbolaren gainean aritu dira, kontu kontari.

Valentzian galdu zenuten, baina ez zaudete haserre. Eibarren martxa ona da, lau puntuko koltxoia jaitsiera postuekiko.

Iker Dorronsoro: Bai, lehiakor ari gara, eta kontent gaude.

Aski ezaguna zara Andoainen, Iker, Euskalduna taldeko entrenatzailea izan zinelako. Alde handia al dago Euskaldunatik Eibarrera?

Iker: Beti mutilekin aritu izan naiz entrenatzaile. Eibartik deitu nindutenean Euskaldunarekin igoera lortu berriak ginen, garai politak izan ziren, baina horrelako aukera datorrenean hartu egin behar duzu, eta horrela ulertu zuten Andoainen ere. Egitura profesional batean sartzen zara, baliabide askorekin, lan —>

→ talde sendo bat, hamar bat lagunekoa, eta lan egiteko erraztasun askorekin.

Nolakoa da zuen egun bat?

Beñat: Bete samarra. Ikastolan aritzen naiz goizez, eta arratsean Eibarrera. Partida egunaren arabera antolatzen dugu astea. Zelaiko entrenamendua hasi aurretik martxan gaude, alor guztiak integratu eta zelaia. Eta lana bukatuta, ba analisia egiten dugu. Zer ondo, zer gaizki, zer hobetu daitekeen... Lan karga handi samarra da, baina polita.

Kirol arloan lan ona egiten ari zarete. Igo berriak izanda ere, jaitsiera postuetatik salbu zaudete. Gustura?

Iker: Lehen Mailan lehiakortasuna handia da, eta errespetua eman zigun igo ginean. Gabonetako atsedena baino lehen 13 partida jokatu ditugu, eta lau puntuko koltxoia daukagu jaitsiera postuekiko. Liga bi zatitan hausten ari da, 10-11 talde gaude beheko multzoan, eta lau talde jaitsiko dira. Asko dira, baina baikorrak gara, eta sumatzen dugu jokalariek beren gaitasunean fedea dutela, staff teknikoa egiten ari garen lanean sinesten dute. Klubak apustu sendoa egin du, Lehen Mailan irautea nahi dute luze, eta aurrekontu apalenetakoa izanda ere, fitxatu diren jokalariek neurria ematen ari dira. Eskarmentu falta apur bat dugu, baina orain arteko balantzea oso txukuna dela esango nuke. Zuzendaritzak ez digu presiorik jarri, helbururik exijitu. Maila galduko bagenu, atzerapausoa litzateke, noski, baina eurek ere ikusi dute ligako lehen herena jokatu ondoren zer nolako maila eman dugun. Baikorrak dira eta gara.

Emakumeen eta gizonezkoen futbola konparatzeko joera agerikoa da. Zergatik?

Beñat: Ezberdinak dira, baina ez nituzke generoagatik alderatuko. Esan nahi dut, infantil eta jubenil mailan entrenatzea ezberdina den neurrian, gizon eta emakumezkoen

entrenamenduak ere ezberdinak dira. Ni ia erabat mutil taldeen prestatzaile aritu izan naiz orain arte, eta behin Eibarren hasita, formazio lan handia egin behar izan dut, mutilekin erabilitakoak ez duelako emakumeentzat balio. Lesioak ezberdinak dira, fisikoki ezberdintasunak dauka, prebentzioa ere ezberdina da... Emakumezkoen futboleko maila fisikoa oso ona da. Geroz eta prestakuntza hobea dute, eta exigentzia handitzen doan heinean, hobea izango da etorkizunean ere.

Iker: Prestakuntza ezberdina da, baina ariketa asko berberak dira gizonezkoen edo emakumezkoen taldeak izan. Intentsitatea funtsezkoa da gaur egungo futboleko, eta Eibarren intentsitatea, baloirik gabeko futbola, asko lantzen dugu. Esango nuke talde gutxi daukela gu baino hobeto presionatzen dutenak. Taldeko plangintza egin genuenean garbi genuen jokalariek fisikoa, indartsuak nahi genituela, eta irizpide horri jarraituta eraiki genuen taldea.

Eta taktikoki, ezberdintasunik ba al da?

Iker: Taktikoki emakumezkoen futbola pixka bat atzeratuago

dago, baina formaziorik izan ez dutelako. Mutilak, infantil mailan, 12-13 urterekin arlo taktikoa lantzen hasten dira, eta emakumezkoetan, agian 16-17 urte bete arte ez da arlo hori lantzen hasten, kadete edo jubenil izan arte. Herri askotan mutilen futbol taldea dago, baina neskena osatzen kostatzen da. Hortik dator gabezia. Formazioa beranduago hasten da. Horrek, trukean badu alde on bat, emakumeek ikasi egin nahi dutela, asko galdetzen dute. Egunerokoan beraiekin lan egitea oso eroso da aberatsa da. Ikusten dute profesionalak direla, Lehen Mailan daudela, eta lan ona egiten badute ate asko irekiko zaizkiela.

Egoak, berekoikeria... Iritsi al dira emakumezkoen futbolera?

Iker: Ni ez naiz mutilen talde profesionalean aritu, baina nabaritzen da batean eta bestean umiltasuna dela ezberdintasun agerikoena. Zorrotzak dira beren buruarekin, baina partida batean jokatzen ez badute, ez dute sekulako iskanbila sortzen. Eragiten die, noski, baina hurrengoan jokatzen saiatzeko akuilu gisa erabiltzen dutela esango nuke, giro txarra sortzeko baino.

Jakinarazten dizute momentuko haserre hori, baina ez modu negatiboan. Maltzurkeria hori ez da oraindik emakumezkoen futbolera iritsi, eta jokalarien umiltasun hori oso lagungarria da gure lanean.

Beñat: Oso eskertuak dira emakumeak. Badakite gu beraien errendimendua hobetzeko lanean ari garela jo eta su, eta ez zaie burutik pasa ere egiten ego arazoak sortzea, jokatu ez dutelako.

Emakumezkoen futbola jendar-tean. Hobetu da onarpena?

Beñat: Ari da. Epe motzera ezin duzu handia ez dena handi bilakatu. Pausoak ematen ari dira, pixkanaka. Ez du gizonezkoen dimentsiorik hartuko, noski, baina haziko da. Gero eta jarraitzaile gehiago erakartzen dituela esango nuke. Telebistaz ere ematen dituzte partidak. Esango nuke emakumezkoen futbol partida bat lehen aldiz ikusten duenaren erreakzioa dela "ze ondo jokatzen duten".

Iker: Komunikabideak apustua egiten ari dira. Ispilua handitzen ari da, taldeak gero eta landuagoak dira, jokalariek hobeak, eta hazkuntza etorriko da.

Dena den, ezin da perspektibarik galdu. Ez urrun, urtebete atzera, 16.000 euroko gutxieneko soldata lotu zen, grebaren ostean. Nork esango zuen halakorik lortuko zela?

Iker: Gutxieneko kontratu kopuru batera iritea beharrezkoa zen. Jokalariek ordu asko eskaintzen dizkiote futbolari, lau edo bost lan saio astero, bidaia asteburuetan... Beste edozein lan bezalakoa da, eta hori ulertu da, behingoz. Askotan, gainera, ezin da beste lan batekin uztartu, eta hori saritu egin behar da.

Beñat: Konpromisoa handia da, profesionalak dira. Pentsa elikadura ere zaindu behar dutela. Entrenamendua hasi aurretik denek pasa behar dute baskulatik.

Euskaraz lan egiten al duzue zuen egunerokoa?



Beñat Erkizia. AIURRI

"JOKALARI INDARTSUAK NAHI DITUGU TALDEAN"

BEÑAT ERKIZIA



Iker Dorronsoro. AIURRI

"KLUBAK LEHEN MAILAN IRAUTEKO APUSTUA EGIN DU"

IKER DORRONSORO



Eibar taldea emakumezkoen lehen mailan ari da. AIURRI

Beñat: Bai, staff teknikoko kide guztiak euskaldunak gara, eta natural egiten dugu euskaraz. Talde osoari gazteleraz, gehienek ulertzen dakitelako. Biren arteko solasaldian biok euskaraz badakigu, ba euskaraz. Nigeriako kide bat dugu, Hegoafrikako bi... Horiekin ingelesez aritzen gara.

Ziurrenik Thembi Kgatlana da taldeko jokalaria ezagunena, hegoafrikarra bera. Nola moldatu dira atzerriarrak Eibarrera?

Beñat: Thembi alai dago, poza transmititzen du entrenatze-
ra etortzen denean. Oso zorrotza da bere buruarekin, gauza asko galdetzen dizkizu. Aurre-denboralditik hona bere sasoi puntu fisikoa hobetu du nabarmen.

Iker: Pisuz kilo batzuk sobe-
ra zituela iritsi zen, sasoi pun-
tuz eta eskas, baina asko ho-

betu du. Ezberdina da, eta asko ematen ari zaigu, dife-
rentziak markatzen dituelako. Herri txiki batera etortzen zara, ez duzu ezer ezagutzen. Atze-
rritarrek edo espainiarrak, Eibarren bizi dira denak, lau etxetan: hiru jokalaria etxe ba-
koitzean. Denbora behar dute, ohitzeko, komunikatzeko, baina ari dira ohitzen, egoki-
tzen.

Guk tratu berdina ematen diogu denei, baina onartuta Thembi dela apur bat diferen-
tzia markatu behar duen jo-
kalaria.

"EUSKALDUNAK GARA STAFF-EKO KIDE GUZTIAK"

BEÑAT ERKIZIA

**Orain Lehen Mailan zaudete, baina erronka pertsonal handia-
gorik baduzue, edo daukazue-
narekin konforme zaudete?**

Iker: Nik epe motzera begira-
tzen dut. Eibar Lehen Mailan mantentzea da nire erronka bakarra, eta ez dut maiatzetik edo ekainetik harago begira-
tzen. Eta Eibartik mugitu... Familia bat daukat. Lau gara etxean, eta ez zait burutik pasa ere egin mugitzea. Eibarren oso gustura nago. Kontratu berritzea ere eskaini digute, dagoeneko, baina Aste San-
tura bitarte hausnartzeko epea

"LEHEN MAILARI EUSTEA DA NIRE ERRONKA"

IKER DORRONSORO

eskatu diet, taldearen martxa ikusi, etxekoekin hitz egin eta beste. Asteburu asko etxetik kanpo pasatzen ditugu, lan handia da eta esan dudana be-
zala, ez nago ni bakarrik.

Beñat: Nik ez daukat fami-
liarik, baina lan karga oso handia da. Lauzpabost egu-
netan arratseko 15:00etan hasi eta etxera iristerako ia gau-
erdia izaten da, gero asteburu osoa etxetik urrun... Hurren-
go denboraldian zer? Pentsa-
tu ere ez dut egin. Egon nahi dudana lekuan nago orain, Eibarren, ez dut beste talderen batean egongo naizen, edo egon nahi ote dudana pentsa-
tu. Nire ardura bakarra hu-
rrongo asteko entrenamenduak planifikatzea da.

**Aukera egin beharko bazenute, irakasle edo entrenatzaile / pres-
tatzaile?**

Beñat: Egoera aztertu beharko nuke zehatz. Unea, energia, indarra daukaten, ez... Irakas-
kuntza asko gustatzen zait, eta etxean, Andoainen nagoen neurrian, gehiago. Oso iden-
tifikatuta sentitzen naiz, ikas-
tolarekin lotura handia daukat, eta erraztasun handiak ema-
ten dizkirate bi lanak parte-
katu ahal izateko. Akaso bes-
telanbideren bat edukiko banu, errazagoa litzateke futbola lehenestea, baina irakasle jar-
duna oso gustuko dut.

Iker: Emaztea ere irakaslea da, eta niretzat ere bokazioa bada maisu izatea. Futbolak denbora asko kentzen dizu, eta irakasle lanean egunerokoa bete eta baduzu etxekoekin egoteko aukera 3ak edo 4eta-
tik aurrera. Asteburuetan ere denbora libre asko... Familia duzunean, futbolarekin uz-
tartzea ez da erraza, baina gustuko lana da, eta gustuko tokian aldaparik ez.

ORMENDI
KIROLAK



MERKEALDIA

Kale Berria, 2. Andoain

943 591 806

ormendikirolak@euskalnet.net





Villabonatik Zizurkil aldera abiatu zen presoek aldeko manifestazioa. AIURRI

Presoen eskubideen aldeko hitzorduak

'Etzerako, elkarbizitzarako, bakerako. Bidea gara' izenburupean, Etxerak eta Sarek hitzorduak antolatuko dituzte Euskal Herrian barrena. Aiztondon eta Andoainen hitzordu bana antolatu dute. Abenduaren 31n, bestalde, manifestazioa deitu zuten hainbat udalek

ERREDAKZIOA ESKUALDEA

Aiztondoko Udal korporazio gehienek deituriko manifestazioaren ostean dator Sareren deialdia. Larunbat honetan, arratsaldeko 17:00tan hasita, Villabona eta Zizurkil artean presoek eskubideen alde elkartuko dira.

Sarek urtero Bilbon manifestazio jendetsua deitu ohi du. Aurtengoan, ordea, ezinezkoa izango da eta horren ordez, Etxerat eta Sare ekimene elkarrekin hitzorduak herriz herri egiteko deia luzatu zuten. 'Etzerako, elkarbizitzarako, bakerako. Bidea gara'

izango da aurtengo lelo nagusia. Larunbat honetan izango da, urtarrilak 9. Beterri-Aiztondon bi hitzordu nabarmenduko dira:

- Andoain: 17:30ean Goiko-plazatik.
- Aiztondo: 17:00 Villabona eta Zizurkil artean.

Abenduaren 31ko manifestazioa

Azken urte luzeetan egin bezala, Aduna, Alkiza, Amasa-Villabona, Asteasu eta Zizurkilgo Udalbatzek euskal presoek urrutze politikarekin amaitzearen aldeko adierazpena gizarteratu zuten. Eurak izan ziren, gainera, manifestazioan pankarta eraman zutenak. Hainbat udalbatzatan haxe da adostu duten eskaera: "Espetxeetako Lege Orokorrak aurreikusten duena bete dadila, askatasunaz gabetzen duten zigorrak bete daitezkeen nor bere inguruetik deserroitu gabe, birgizarteratzearen printzipioek adierazten duten moduan. Zentzu horretan, 2011 urtean ETAK jardura armatua utzi zuenean irekitako denboraldi berriaren barruan honako hau adierazten du: beharrezkoa dela beste espetxe-politika bat, presoek beren gizarteko eta familiako erroak dituzten lekuetatik urrun zigorrak bete beharra ekidingo duena. Politika horrek presoak bere familiarekin harremanak izatea erraztuko du eta adin txikiko seme-alaben ongizateari begiratuko dio, gurasoek haiekin egoteko duten eskubidea defendatzeko".

LARUNBATEAN PRESOEN ALDEKO EKIMENAK DEITU DITU SAREK

Motorraren GIDA

Bengoetxea autoeskola

Ikastaro trinkoa
Lortu teorikoa bost egunetan

- ANDOAIN
943 594 406
- VILLABONA
943 690 057

IBAI-ONDO GARBIKETAK

943 692 256

Industrialdea, 16
20170 IRURA

Mendi autoeskola

Ikastaro trinkoa
Lortu teorikoa bost egunetan

Agustin Leiza, 11 - Andoain
☎ 943 300 604

AZKAIN

Motoak
[ANDOAIN]
Ubilluts. 56 Pol. 12. 943 591 413

KARRIKA

Auto konponketa
[ANDOAIN]
Ubilluts. 56 Pol. 10. 943 300 214

URPA

Autobusak
[ANDOAIN]
666 489 010 (24 ordu)
943 305 050 (Garajea)



Sei bertsolariak, Asteasuko Udal ordezkariak, antolatzailea eta Tolosaldeko bertso eskolako gazteak. AIURRI

Pello Errota bertso sariketaren finala

Harituz elkarteak antolatutako bertso lehiaketaren finala Asteasun izan zen, joan zen abenduaren 27an. Saillkapen proba bikoitzaren ostean, seikotea saillkatu zen finalera. Bertsozale ugari elkartu zen Usarrabi pilotalekura. Bertso-saio gehienak Aiurri.eus gunean ikusgai daude

XABIER LASA ESKUALDEA

Amaia Iturriotz urretxuarrak jantzi zuen txapela abenduaren 27an arratsaldean izan zen Pello Errota bertso sariketan. Finalean Erika Lagoma, Iñigo Izagirre, Izarne Zelaia, Jon Martin eta Unai Mendizabalekin batera aritu zen kantari,

eta Maddi Labaka izan zuten gai jartzaile. Bertsozale franko gerturatu zen pilotalekura, eta saio polita entzuteko aukera eduki zuen.

Mendizabal zizurkildarra izan zen eskualdeko ordezkaria, finalean. Bertsoaldi gehienak ikusgai daude Aiurri.eus

gunean, bideoen atalean. Hona azken saillkapena eta puntuak, saioa amaitu eta gero: 1.- Iturriotz (269,5 puntu); 2.- Martin (258 puntu); 3.- Izagirre (252,2 puntu); 4.- Mendizabal (248 puntu); 5.- Lagoma (236,5 puntu); eta, 6.- Zelaia (224 puntu).

Bertso onenaren saria

Bertso onenaren Mikaela Elizegi saria **Iñigo Izagirre**rek jaso zuen, puntu erantzunean emandako bertso batengatik: Puntua: *Gaur egun abeltzaina zer moduz bizi da?*

Erantzuna: *egun guztiak beti desberdinak dira.*

Batzutan egin behar karroari tira, eta bestetan egon zeruari begira.

Azken agurreko bertsoak Unai Mendizabal:

Gure Haritzi zer esan zer lan ta ze interes han. Gaurko egunak sorpresan brillua eduki zezan. Harituztarroi biltzen gerano! Haritzen hileko mezan. Bideo bilerak izanagatik animorik ez ta etzan. Nere eskerrak lanean ari direnei ta esperantzan bertsoan egin nahi dunak plazan txoko bat eduki dezan (bis)

Amaia Iturriotz:

Mikaela Elizegi da gure paisaia Ta gaur ginen Erika, Izarne, Amaia. Aldatu nahi ditugu doinua ta gaia, eta zirtoak berez daukan esanahia. Elkar hartuta gaude, saretu gera ya. Ta ez zaigu asko inporta besteen epaia. Elkar hartuta gaude saretu gera ya. Mikaela, hauxe da, señoaren garaia.



TXERRIKIEN BANATZAILE ETA EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA. Ama Kandida. z/g 307. Moduloa ANDOAIN. ☎ 943 592 923
www.ormaki.net

FRANCISCO MENDIKUTE

Harategia - Urdaitegia

Esne produktua, haritatuak, kontserbak eta kalitatezko okela
Euskal Herriko produktuetan oinarritua

Kaletxiki, 15
☎ 943 590 258
ANDOAIN



Iraola

Aholkularitza - Artezkaritza

ENPRESEN AHOLOKULARITZA
Piskala, dirukontuena, juridikoa, laborala, aseguru orokorrak
Kale Nagusia, 37 - AMASA-VILLABONA
Tel: 943 692 763 • Faxa: 943 692 774

Gaitzak itzarri ditu
gure miseriak:
"zaharrak" hartu ditugu,
jaurtikiz harriak!
Ozen esan dezagun
heldu ta gaztiak:
gora aiton-amonak,
GORA NAGUSIAK!

Ez dezagun inor atzean utzi:
Urteberri zorionsua
den-denontzat!

Argazkia eta testua:
Xabier Huitzi Belamendia

Datu teknikoak:
Canon EOS 70D
ISO 200
18 mm
8,0 seg
f/11





ZU ERE ARGAZKILARI:
Zure argazkia Irudiz irudi
atalean argitaratu nahi baduzu,
jar zaitez gurekin
harremanetan:
diseinua@aiurri.eus



'Olentzaroren basoa' ekimenean txikiak Olentzerorekin eta Mari Dominginekin egoteko aukera izan zuten. AIURRI

"Agur urte beltz honi, eta datorrela kolorea!"

Ez ohikoa izanagatik, ez du zertan txarra izan behar. Larraulgo Herri Eskolakoek txarrenari onena atera eta bideo ederra zabaldu zuten Aiurri.eus bidez. Habanera abestu zuten, amaiera dotorea ipinita: "Urte berria izan bedi, zaharra baino hobea"

ERREDAKZIOA ESKUALDEA

Jakina da Aiztondoko biztanleentzat gertuko erreferentziak udalerrira Amasa-Villabona dela. Abendura iritsita, Eguberrietako argirik ez zuten ikusi herriko kaleetan. Argi gutxiago jartzea eta beranduago piztea Udalak hartutako erabakia izan zen. Pandemia betean, Udalak Gabonetarako argitarako aurrekontua %60an jaistea erabaki zuen. Merkataritza eta ostalaritza nagusi den gunetan ipini dituzte argiak, hala nola, Kale Nagusian, Kale Be-

rrian, Santio kalean, Txistulari plazan, Olaederra inguruan eta Larrea zein Errota auzotako aurrealdean. Eguzki-izpiak moteltzen hasi orduko piztu zituzten, urdin kolorekoak gehienak.

Batak ez du bestea kentzen, ordea. Iluminazioari dagokionez argitsuenak izan ez badi-ra ere, dizdira berezikoak izan dira aurtengo Gabonak. Herri eragileak eta Udalak ekimen betean murgildu dira egunotan, Eguberrien ataritik hasi eta Errege Magoen Kabalgataraino.

Bigarren urtez jarraian, Zunbeltz elkarteak "Olentzeroren basoa" antolatu zuen, Udalarekin elkarlanean. Arrakas-ta handiko hitzordua da, eta ez bakarrik udalerriko familientzat; eskualdeko eta Andoain aldeko familia ugari bertaratzen da Olentzero eta Mari Domingiren magiaz gozatzeri. Etxeondotik abiatu eta Aranerrekatik gora, neguko solistizioko pertsonaia ugari gertutik ezagutzeko aukera izan zen, garai bateko usadioak eta sinesmenak go-gora ekarrita.

Prebentzio neurri guztiak hartuta, 8 urte arteko dozenaka haur elkartu zen hainbat hitzordutan antolatuta. Ezinbestekoa bilakatu da, honez-ker, "Olentzeroren basoa" ekimena.

Pandemia garaian, aldakorra da egunerokoa. Zoritzarrez, aldakortasun hori murritz-tekin lotu izan da. Izan da horrelakorik, bereziki ostalari-tzari begira. Baina ezusteko onak ere egon dira. Abendua-ren 23an, Aranerreko txokoa utzi eta Olentzero eta Mari Domingi herrigunera hurbil-du ziren. Ez zuten hutsik egin nahi izan, eta iluntzean kalez kale ibili ziren. Adar soinuak iragarri zuen etorrera. Doinua entzun orduko, leiho eta bal-koietara atera ziren etxeko txikiak. Garairik zailenetan ere, magiari eustea gauza han-dia da!

Olentzero eta Mari Domingi eskualdean

Billabonatarak ez ziren izan bi pertsonaia ezagunak bertatik bertara ikusteko aukera izan zuten biztanle bakarrak. Abenduaren 23an, goizeko 10:00ak aldera iritsi ziren Adu-nako plazara traktorean. Ber-tan zirela, haurrek kantu eza-gunak abestu zizkieten. Ikasgela bakoitzeko argazki bana atera ostean, opariak banatzeko garaia iritsi zen. Behin hori amaituta, berriro traktorera igo eta sagardote-gietatik aurrera mendi aldera abiatu ziren.

Biharamunean, mendialdea utzi eta Asteasura jaitsi ziren. Udal pilotalekura sartu eta zain zituzten herriko haurrak. Haiekin batera abestu ondoren, goxokiekin gozatu zuten ego-naldia. Azken gutunak jasotzeko aukera baliatu zuten Olentzerok eta Mari Domingik, gau magikoa iristeko ordu gutxiaren faltan.

"Agur urte beltz honi eta datorrela kolorea!". Ez ohikoa izanagatik, ez du zertan txarra izan behar. Larraulgo eskola-ko ikasleek bideo bidez gabon



Jon Kepa Kortajarena bikain aritu da aurtien Halterofiliko txapelketetan. AIURRI

bertsoa zabaldu zuten: "Urte berria izan bedi, zaharra baino hobea".

Eskola guztietara, modu batera edo bestera, iritsi ahal izan ziren Olentzero eta Mari Domingi. Zizurkilgo Pedro Mari Otaño herri eskolan, esaterako, txikienekin birekin bisitaldia jaso zuten.

Gogoan hartu nahi izan zituzten Fraisoroko egoiliarak: "Gaurko egunez Fraisoroko aiton-amonak gogoan izan nahi ditugu. Beste urtetan abestera joan izan ohi gara. Gaur, ordea, eskolan grabatutako gabon abestiekin egingako bideotxo eta hainbat eskulan eraman dizkiegu". Distantziatik izan arren, gogoan hartu zituzten.

Halterofilia

Kirol jarduera gutxi egin ahal izan da eskualdean azken saio honetan. Hutsik egin ez duena halterofilia izan da, Danok Danena taldeak Zizurkil en bertan antolatu baitzuen Gipuzkoako Halterofiliko Txapelketa.

Urte luzez erakutsi duen mailari eutsiz, abenduaren 19ko lehiaketan herriko taldea txapelduna izan zen, emakumezkoetan zeingizonezkoetan. Hauexek izan ziren Danok Danena taldeko partaideak: Naiara Madrid, Ana Zubiarrain, Alazne Gomez, Daniela Perez, Jon Kepa Kortajarena, Ekaitz Kortajarena, Jon Rodriguez, Pablo Ucero, Eki Lizaso, Mikel Alvarez eta Jonatan Botanes.

Zizurkilgo azoka



Sualma egurrezko jostailuak erosteko aukera egon zen. AIURRI

Sualma egurrezko jostailuak Zizurkilgo artisauen azokan. Sualma markako egurrezko jostailuak ezagutzeko eta erosteko aukera egon zen.



AMLU markako bitxiak sortzen dituzte Zalakain ahizpen. AIURRI

AMLU eta Kaori Faktoria Lurgi eta Amets Zalakain ahizpek elkarlanean sortzen dituzte AMLU bitxiak. Kaori Faktorian daude salgai, eta Kaorik ere jarri zuen postua.



Endika Azpiroitz larrauldarra azokan izan zen txakolina saltzen. AIURRI

Arbela txakolina 2011n landatu zituzten mahatsondoak Aiako Zipiotegi baserrian. Haiek emandako mahatsarekin egiten dute Arbela txakolina.



Baserriko haragia
Urdaitegi berezia

Bulandegi bidea, 1. Zizurkil

943 69 62 42

STOP

LIBURUDENDA

Agustin Leitza, 27 - 943 591 603 - ANDOAIN





Olentzero eta Mari Domingi traktorean iritsi ziren Adunako plazara abenduaren 23an. AIURRI

Gabonetako ekitaldien errepassoa irudi bidez

Olentzero eta Mari Dominginen etorreraren ondoren, hamaika ekitaldi antolatu dira eskualdeko herrietan, hala nola, artisau azokak, kirol lehiaketak, bertso txapelketak... Ohiko formatuetan antolatu ez badira ere, herritarrek zenbait ekimen ikustera joateko aukera eduki dute

OLATZ LASA ESKUALDEA

Gabonei amaiera emateko, hiru Errege Magoak etorri ziren bisitan Villabonara eta Asteasura. Gurea zinemara joan behar izan zuten billabonatar gaztetxoek Erregeekin minututxo batzuk egoteko. Asteasun ere ez zen

kabalgatarik egon. Txikienak ilaran jarri eta, adin-tarte bakoitzak dagokion koloretako txartela eman ostean, opari bana banatu zieten Erregeek.

Gabonetako ekitaldiak

Gabonen bueltan, askotariko ekitaldiak antolatu ziren es-

kualdean. Zizurkilen, esaterako, eskualdeko artisauen azoka izan zen abenduaren 20an; eta Eguberri bezperan, berriz, Villabonako Errebote plazan.

Abenduaren 27an Pello Errota Bertsolari Txapelketako finala izan zen Asteasun, eta

Amaia Iturriotz urretxuarrak eskuratu zuen txapela.

Urtea amaitzeko, Urrezko Aizkolarien Kopako finala izan zen Asteasuko Usarrabi pilotalekuan. Kañamares IV.ak jantzi zuen txapela, zortzi kanardiko 20 minutu eta 40 segunduan ebaki ostean. Aizkolari gazteetan Suharri-Basozabal bikoteak irabazi zuen; harri-jasotzen Urdax-Irañeta bikoteak eta ingudean Kar-mele Gisasolak minutu eta erdian 96 altxaldi burutuaz.



**Urrezko
Aizkolarien
Kopako finala
ikusgai,
QR kodean**



Xixori
BELARDENDAK ANDOAINEN

**Dietetika zentroa
Kontsulta naturista**
Txitibar, 4 ☎ 943 245 023
Eskola halea, 3 ☎ 943 590 199



Virginia Finol bigarren geratu zen Emakumezkoen Ingude Txapelketan. AIURRI



Zizurkildarrekin argazkiak atera zituzten Olentzerok eta Mari Domingik. AIURRI



Asteasun goxokiak banatu zizkieten herriko txikitxoenei. AIURRI




Urdax Magunazelaia 'Urdax' harri kubikoa jasotzen kameren presentzian. AIURRI



Gaueko bederatzieta iritsi ziren Villabonara Olentzero eta Mari Domingi. AIURRI



Kañamares IV.ak jantzi zuen txapela Urrezko Aizkolarien Kopako finalean. AIURRI



Artisau merkatua izan zen Eguberri egunean Villabonako Errebote plazan. AIURRI



Hamahiru!

Aurki itzazu bi irudion artean dauden aldeak. 13 dira guztira.




Itzala

Zein da eskiatzaile traketsaren itzal zuzena?



ELUR bola



Zer sartuko zenuke elur bola batean? Paisaia zuritu bat? Otsoa? Eskiatzaileak? Marraztu.

Mezu gordea



Eman beheko irudi bakoitzari bere hizkia eta esaera zahar bat osatuko duzu.



Negu gorriko sudokua

Osatu lauki zuriak sudoku bakoitzari dagozkion hizkiak kontuan hartuta. Gogoratu letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

NEGU


(N, E, G eta U)

	N		E
		N	
	G		
U		G	

GORRI

(G, O, RR eta I)

O			G
		RR	
	O		
I			RR



HauXe Parea

Arrain hauen artetik bi berdín-berdinak dituzu (tira, agian bat bestea baino handiagoa, baina gainontzean berdín-berdinak). Zeintzuk ote dira?

Lerro bakoitzean bada elementu bat gainerakoekin bat ez datorrena.

SOLUZIOAK


HAUXE PAREA: 5, 8
PASATU NEGUA ETORRI
Mezu gordea: ANTZARAK
ITZALA: 5



U	E	G	N
N	E	U	
E	U	N	G
G	N	U	E



Arrotza



URTARRILAREN 8TIK AURRERA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI. Tel.: 943 300 732 / 619 163 537 / gil@aiurri.eus / arozena@aiurri.eus / diseinua@aiurri.eus

TAILERRA

ZIZURKIL

Linterna magikoa

Linterna magikoa egiten ikasteko tailerra egingo da liburutegian. Plaza mugatuak dira, eta izena eman behar da.

Plazida Otaño liburutegia.

Urtarrilak 8, ostirala. 17:30.

MANIFESTAZIOA

ESKUALDEA

Geziak bete, hustu espetxeak!

Presoen eta iheslarien etxeratzea eskatzeko mobilizazioa izango da. Izena emateko bi bide daude: WhatsApp-ez 673 42 41 00 edo sareamasabillabona@gmail.com helbide elektroniko bidez.

Zizurkil eta Villabonako kaleak.

Urtarrilak 9, larunbata. 17:00.

LITERATURA

ZIZURKIL

Irakurketa kluba

Robert Laxalt idazlearen 'Dulce tierra prometida' liburuaren gauean solasteko aukera egongo da Monica Leivaren gidaritzapean.

Plazida Otaño liburutegia.

Urtarrilak 12, asteartea. 18:00.



LEIRE SALABERRIA

ANDOAIN Leire Salaberriaren ilustrazioa lanen erakusketa

Salaberriak 2015tik gaur arte egindako ilustrazio lanak ikusgai.

Urtarrilak 8, ostirala. Bastero Kulturgunea.

HITZALDIA

AMASA-VILLABONA

'Bidea ipar' liburua

Iker Karrera korrikalariari buruzko liburua da 'Bidea ipar'. Unai Ugartemendia kazetaria da egilea, eta biak izango dira hitzaldian. Aurrez, Dani Sagastumek egindako dokumental laburra proiektatuko da. Doan.

Gurea zinema.

Urtarrilak 21, osteguna. 19:00.

ODOL EMAILEAK

ANDOAIN

Odol emate hitzordua

La Salle Ikastetxea.

Urtarrilak 12, ast. 16:30-20:10.

HAUR ANTZERKIA

AMASA-VILLABONA

Laika

Sarrera: 4 euro, leihatilan edo

ZINEMA

AMASA-VILLABONA

GUREA ZINEMA

Mi amigo Pony

Urtarrilak 9, larunbata. 16:45.

Urtarrilak 10, igandea. 16:45.

Hasta el cielo

Urtarrilak 9, larunbata. 19:00.

Urtarrilak 10, igandea. 19:00.

Urtarrilak 11, al. 19:00.

El inconveniente

Urtarrilak 16, larunbata. 19:00.

Urtarrilak 17, igandea. 19:30.

Urtarrilak 18, al. 19:00.

ANDOAIN

BASTERO KULTURGUNEA

Mi amigo Pony

Urtarrilak 9, larunbata. 16:30.

Urtarrilak 10, igandea. 16:30.

Madame Curie

Urtarrilak 9, larunbata. 19:00.

Urtarrilak 10, igandea. 19:00.

Urtarrilak 11, al. 19:00.

villabona.eus webgunean.

Gurea antzokia.

Urtarrilak 17, igandea. 17:00.

KONTZERTUA

AMASA-VILLABONA

Eñaut Elorrieta

'Irteera argiak' izeneko da Eñaut Elorrietaren azken lana.

Sarrera: 12 euro.

Gurea zinema.

Urtarrilak 14, osteguna. 19:00.



LEIZARAN INSTITUTUA

- **DBH: D ereduari**
- **BATXILERGOAK:** Zientifikoa, Humanistikoa, A eta D ereduari
- **GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK:** Gizarte integrazioa A eta D ereduari

www.integra.eus



Plazaola, 23 - 20140 Andoain

943 899 259

zuzendaritza@leizaran.net - www.leizaran.net

ZOZKETA

Arruti gozotegiko errege-opila zozketa martxan

ERREDAKZIOA ANDOAIN

Aiurriko harpidedun izateak saria dakar, eta hori ondotoxoz dakite zozketaren ataleko parte-hartzaileek.

Urte berria hastearekin batera, Aiurri hamaboskariak abian jarri ohi du errege-opilaren zozketa.

Garaia hauxe da eta, urtariraren 6a atzean geratzen ari bada ere, opila jateko aukera ez da baztertu behar. Are gehiago, primerako kalitatezkoa bada!

Parte hartzeko, honako hitz-gakoa zehaztu behar da: Errege-opila. Urtarrilaren 15a baino lehen eman daiteke izena, modu hauetara:

- Whatsappez: 619 163 537.
- Emaila: diseinua@aiurri.eus
- Telefonoa: 943 300 732.

Zorte on parte-hartzaile guztiei!



HERIOTZAK

- **Juan Jose Simon Manga.** Abenduaren 14an, Andoain.
- **Iñaki Zarraga Etxeberria.** Abenduaren 15ean, Andoain.
- **Sebastiana Etxeberria Begiristain.** Abenduaren 16an, Andoain.
- **Juanjo Garmendia Garmendia.** Abenduaren 20an, Andoain.
- **Francisco Jesus Marques Blanco.** Abenduaren 24an, Andoain.
- **Maria Dolores Irigoras Etxebeste.** Abenduaren 28an, Andoain.
- **Jose Maria Garin Ugalde.** Abenduaren 29an, Andoain.
- **Juan Jesus Sarasua Elizegi.** Abenduaren 21ean, Zizurkil.
- **Ricardo Ramos Martin.** Abenduaren 23an, Zizurkil.
- **Enara Galarza Irazusta.** Abenduaren 28an, Zizurkil.

MERKATU TXIKIA

ESKOLAK

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantse-seko klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresetarako klaseak. **693 692 823 - 665 719 827**
Bederatzi urteko haurrak, **ukelelea** ikasteko eskola partikularrak hartuko lituzke, Andoain. **650 341 108**

SALGAI

Volkswagen Passat 1.6 Diesel 110cv 2014koa salgai, 172.000 km. Prezio ona. **659 848 574**

MERKATU

TXIKIAN

PARTE

HARTZEKO

diseinua@aiurri.eus / 619 163 537
Tel.: **943 300 732**
Arantzibia 4-5, behe. ANDOAIN

Jaio da!



Eman jaiotzen berri Aiurri eta Interneten. Deitu **943 300 732** telefonora, bidali mezua **whatsappez 619 163 537ra** edo zatoz egoitzara.

Argitaratu baino astebete lehenago jasotako jaiotzak bakarrik kaleratuko ditugu.

ZORION AGURRAK



LARRAUL

Alaine

Zorionak itxuxiii!

Dagoeneko 2 urte handi!! Pa eta maite-maite aita, ama eta Aritz anaixoaren partetik.



ANDOAIN

Elene Idigoras Alfageme

13 urte dagoeneko maitia. Barre egiten duzunean politago zaudela badakizu, ezta? Mila muxu potolo etxeko guztien partez.



ANDOAIN

Hodei Rabadan Larrea

Gure mutikoak 4 urte bete zituen urtariraren 5ean. Olentzero batetik eta bere eguna bestetik opari eta muxu pila izan ditu.



ANDOAIN

Indar Fernandez Saez

Urte berezi hontan gure kuadrillako txikiak oharu gabe urtebete beteko du! Zorionak pottoko ta bikain pasa eguna familia!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri hamaboskarian. Oso erraza da, eta dohainik!

- www.aiurri.eus Zorion agurrak atalean
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- diseinua@aiurri.eus
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **Telefonoa:** 943 300 732

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

► Hileta egunean eskala Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri hamaboskarian eta Aiurri.eus-en: **160 € /**
Aiurriko harpidedunentzako **90 € + BEZ**

► Eskala mota guztiak Aiurri hamaboskarian + Aiurri.eus-en: **140 € + BEZ**
Aiurriko harpidedunentzako **90 € + BEZ**

Eskelak Aiurriin: 90 euro





ANDOAINGO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA



H e r r i t a r r o n e s k o l a



ondarreta ikastetxea
A N D O A I N

Kale Nagusia z/g

20140 ANDOAIN

Tfnoa.: 943 59 27 56

Faxa: 943 30 09 14

012779aa@hezkuntza.net

www.ondarretaikastetxea.org



- 2 urtetik aurrera
- Euskara, gaztelania, ingelera
- Jangela. Siesta txokoa

- "AMARA BERRI SISTEMA":
Hezkuntza Proiektua
berritzailea eta bermatua
- Haurtzaindegi zerbitzua:
07:30-09:00

BILERA INFORMATIBOA: HITZORDUA HARTUTA



LEIZARAN INSTITUTUA



- DBH-ESO, B ETA D EREDUAK
- BATXILERGOAK:
Zientifikoa, Teknologikoa,
Humanistikoa,
A eta D eredueta
- GOI MAILAKO HEZIKETA
ZIKLOAK:
Gizarte integrazioa
A eta D eredueta
www.integra.eus

Plazaola, 23- ANDOAIN

943 899 259

zuzendaritza@leizaran.net

www.leizaran.net

**2-20 urte bitarteko andoaindarrontzat kalitatezko
Euskal Hezkuntza Publikoaren eskaintza**

Ate irekia

Bazkardon.

urtarrila 2021

				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

22

OSTIRALA

23

LARUNBATA



ANDOAIN GO

IKASTOLA

www.andoainikastola.eus